



### **Kolaborazioa: Fernando Salegi eta Begoña Rodríguez**

Eguzkitik urteak daramatzagu aldarritzen Euskal Herria ez dugula nahi Europako zabortegia izaterik nahi. Oso desberdina da birziklatze edota Administrazioetik ekonomia zirkularra bultzatzea. Horregatik, Ingurugiro Fiskaltzak zabalduetako ikerketa, Europolekin eta SEPRONAKo agenteekin elkarlanean, Erandioko Indumetal Recycling enpresan arrisku hondakinekin egindako praktika ilegalengatik. Enpresa honen aktibitatea Aparatu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen birziklatzea da, batez ere telebistak eta tubo ordenagailuak (ez pantaila laukoak), pilak eta bateriak.

Administrazio guztiei arreta piztu beharko litzaieke, EBtik Bizkaiko Foru Aldundirarte, Eusko Jaurlaritzatik eta Estatu Gobernutik igarota, Recypilas bere eskumendeko enpresari eman izan dizkiete ehudaka mila euro laguntzetan berrikuntza, I-G-b eta ingurugiro kontzeptuetan.

Are gehiago, lehenengoak izan beharko lirateke salatzen auzi judiziala zabalduko balitz hasitako ikerketaren harira emandako diru publikoa berreskuratu ahal izateko. Azkenik enpresa honen jokabidea laguntza eta diru-laguntza hauen oinarrien kontra jokatu duenaren irizpidea ematen bada, eta berdin, hona helduta, hauen kontrol prozeduraren berreikusketa sakon bat bultzatu beharko litzateke behin diru-publiko kopuru hori jasota.

Indumentalek, antzinako Industrias Reunidas Minero-Metalúrgicas enpresan dauka jatorria, kutsaduragatik diktadura frankistak itxi zuen, 1984an berriro martxan jarri zutenek Neguriko familia garrantzitsuenekin lotura zuten, negozioetarako aukera ikusi zuten hastear zegoen hondakinen kudeketan eta apenas ezagutzen ekonomia zirkular kontzeptuan. Gaur egun,

Euskadiz gain, Madril, Andaluzia eta Katalunian plantak ditu. Horietako batzuk FCC eta Endesarekin sozietatean.

Orain, firma honen ingurugiro sentsibilitatearekin eta berrikuntza izaerarekin, 2008tik Ignacio Maria Echeberria Monteberrriak gidatuta, EAJko giroan oso ezaguna, Gorte Nagusietan hauek ordezkatu zituen 80ko hamarkadan lehenengo Gipuzkoatik eta gero Bizkaitik, susmopean dago, eta horiekin batera Administrazioak, haien kontrol sistemak eta irizpideak lizentziak emateko kontsezio eta berritzeak, diru-laguntzak, etab.

Ikertutako gertakaria, salaketa anonimo baten harira, RAEE-n deklaraturako hondakin arriskutsuen kopuruaren eta berreskuratutako materialarekin ez dator bat, ustez, askoz txikiagoak. Fiskaliaren susmoak kutsadura kentzen ez zioten txikitu gabeko material hori, enpresak fundizioetara saltzen zituela, eta negozioa bikoitza izango zela: egin gabeko kudeaketa bategatik kobratzea eta fundiziorako material baten saltzea bezala kobratzea.

Kontakizun honetan, hauen lizentzia-jardueratik eratorritako betebeharrak ez betetzea Erandioko plantako jardueran hasten zen, aparatuak kamioietatik iraultze metodoarekin egiten zituzten, apurketa ematen zen eta substantzia arriskutsuen askatzea zekarren; birrintzerako ez zituzten neurriak hartzen eta plantako patioan egiten zituzten materialak banatu gabe aurrerago berrerabili ahal izateko; eta azkenik, osasunareko eta ingurugirorako substantzia arriskutsuak ez kentzea, metal pisutsuak eta elektrolitoak, kutsadura handikoak (beruna, kadmioa, kobrea, zinc edo fosforoa).

Kutsadura trama hau ixteko, ikertutako enpresak baliteke, lixiviado eta molienda hondakinak Asuako itsasadarrera isuri izana, gertu dagoena edo estolderiara, langileen Osasuna arriskuan jarri beharrezkoak diren babes neurriak ez izategatik.

Kontestu honetan, Erandion, Alemania, Frantzia, Portugal eta Italiako hondakinak sartzen ziren (2000tn/urteko gutxi gorabehera), kutsagarritasun handiko osagarriekin, baina baita ere oso garrantzitsuak ekonomia zirkularraren eskeman (berreskuratzea, konpontzea, berrerabilpena eta birziklatzea), kolektibo ekologisten eginbehar eta sentimenetan zutabe dena.

Horreगतik, Eguzkitik nabarmentzen dugu: Administrazioen jokaeren berreikuspen sakona eta autokritikoa egitea beharrezkoa da. Herritarren konfidantza jokoan dago, batez ere egunerokotasunean hondakinen banaketa eta ontziratze zuzena lortzeko, honek zerbaiterako balio duela ikus dezaten. Administrazioak ez badu zuzen jokutzen, zeratarako balio dute ingurugiroarekin zerikusia duten sentsibilizazio kanpainen?

Eta honek ez badu konbentzitzen, iraganean Erandioko herrian kutsadura maila altuagatik, mobilizazio handiak egin ziren eta garesti ordaindu zuten: Polizia Nazionalen tiroengatik hildako bi persona. Haien oroimenez.